# XEDAPEN OROKORRAK

## HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

## 4393

*AGINDUA, 2012ko irailaren 20koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Ikastegia erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzen dituen 2003ko irailaren 2ko Agindua bosgarrenez aldatzen duena.*

Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20.1 artikuluak hauxe xedatzen du: Administrazio Publikoetako fitxategiak sortu, aldatu edo kendu ahal izango dira bakarrik Estatuko Buletin Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako xedapen orokor baten bidez.

Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruz otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 4. artikuluak xedatzen duenez, fitxategiaren ardura duen saileko titularraren agindu bidez sortu, aldatu eta ezabatu beharko dira Autonomia Erkidegoko Administrazioko fitxategiak. Eta agindu horrek aipatu beharko du indarreko araudietan aginduta dagoen guztia eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Herrizaingoko sailburuaren 2003ko irailaren 2ko Aginduaren (2003ko irailaren 2ko EHAA, 170. zk.; hutsen zuzenketa, 2003ko urriaren 10eko EHAA, 198. zk.) bidez arautu ziren Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako «Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia» erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak.

Agindu hori aldatu da Herrizaingoko sailburuaren 2007ko apirilaren 2ko Aginduaren bidez, 2007ko maiatzaren 7an argitaratua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, (Herrizaingoko sailburuaren 2007ko ekainaren 7ko Aginduak aldatuta, 2007ko ekainaren 29an EHAAn argitaratua). Halaber, Herrizaingoko sailburuaren 2008ko apirilaren 7ko Aginduak (2008ko apirilaren 22an Euskal Herriko Aldizkarian argitaratua) eta 2008ko urriaren 7ko Aginduak (2008ko abenduaren 5eko Euskal Herriko Aldizkarian argitaratua) sortu dituzte Herrizaingo Sailaren eta hari atxikitako Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia erakunde autonomoaren datu pertsonalen fitxategi automatizatu berriak. Arau horren azken aldaketak honako bi hauek izan dira: Herrizaingoko sailburuaren 2010eko abenduaren 20ko Agindua (2010eko abenduaren 24ko EHAA); eta Herrizaingoko sailburuaren 2012ko martxoaren 9ko Agindua, Herrizaingoko sailburuaren 2003ko irailaren 2ko Agindua laugarrenez aldatzen duena (agindu haren bidez, arautu egiten dira Herrizaingo Sailaren eta berari atxikitako Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia erakunde autonomoaren datu pertsonalen fitxategi automatizatuak, 2012ko martxoaren 30eko EHAA).

Arau horiek argitaratu ondoren, eta Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren zenbait aurreikuspen betetze aldera, fitxategi berri bat sortu beharra dago, II. eranskineko 12., 13. eta 49. fitxategiak bilduko dituena (fitxategi horiek Polizia zerbitzurako Datuak Lantzeko Zentroaren mendean daude). Fitxategi horrek bilduko ditu, orobat, honako agindu hauetan jasotako aurreikuspenak: Herrizaingoko sailburuaren 2012ko ekainaren 8koa Agindua, handizkako txatarra eta beste hondakin-produktu batzuen komertzioak direla- eta Ertzaintzarentzako erregistro- eta informazio-obligazioak betetzeko era garatzeko dena (2012ko ekainaren 25eko EHAA); Herrizaingoko sailburuaren 2012ko maiatzaren 18ko Agindua, gidaririk gabeko ibilgailuen alokairuan diharduten establezimenduek Ertzaintzari eman beharreko erregistro- eta informazio-mailako betebeharrak nola gauzatu behar dituzten azaltzeko dena

(2012ko ekainaren 29ko EHAA); Herrizaingoko sailburuaren 2012ko maiatzaren 18ko Agindua, osagaien artean metal preziatuak dituzten objektuak merkaturatzen eta birziklatzen jarduten dutenek Ertzaintzari eman beharreko erregistro- eta informazio-betebeharrak nola gauzatu behar dituzten azaltzeko dena (2012ko uztailaren 4ko EHAA); eta Herrizaingoko sailburuaren 2012ko maiatzaren 18ko Agindua, turismo-ostatuko enpresek Ertzaintzari eman beharreko erregistro- eta informazio-betebeharrak nola gauzatu behar dituzten azaltzekoa dena (2012ko uztailaren 10eko EHAA).

Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 40. artikuluan xedatutakoa betetzeko, Udaltzainen Erregistroa sortu da, lege horretan aurreikusitako koordinazio-funtzioak egiteko tresna gisa. Hori dela eta, fitxategi berri bat sortu beharra dago, erregistro hori arautzeko.

Horregatik eta argitasuna eta legezko segurtasuna lortzeko, argitaratu egingo da beste xedapen bat, ordura arte indarrean daudenak osatzen dituena.

Hori dela eta, honakoa

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Datu pertsonalen gaineko bi fitxategi gehiago sortzea, agindu honen I. eranskinean zerrendatuko direnak.

2. artikulua.– Herrizaingoko sailburuaren 2003ko irailaren 2ko Aginduaren II. eranskineko («Polizia Zerbitzuetarako Datuak Lantzeko Zentroaren (PZDZ) ardurapean dauden fitxategiak») fitxategi hauek II. eranskin horretako 57. fitxategian («Herritarren segurtasunerako jardueren erregistroa») sartzea: 12. fitxategia («Ibilgailuen alogera eta zatikatzea»), 13. fitxategia («Bitxien eta material Preziatuen salerosketa») eta 49.a («Ostatu ematea eta hartzea»).

3. artikulua.– II. eranskinean argitaratzea Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Ikastegia erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuen aurkibidea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Herrizaingo Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzak Datuak Babesteko Euskal Bulegoko Erregistroari jakinaraziko dio fitxategiak sortu izana eta aipatu Erregistroan inskribatzea eskatuko du.

Bigarrena.– Lege hau sartuko da indarrean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 20a.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

I. ERANSKINA

FITXATEGI BERRIAK SORTZEA

I. eranskina.– Herrizaingo Sailaren eta hari atxikitako «Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia» erakunde autonomoaren administrazio fitxategiak.

II.– Segurtasun Sailburuordetzaren menpeko zuzendaritzen erantzukizuna:

C) Udaltzaingoak eta Segurtasun Pribatua Koordinatzeko Zuzendaritza.

56.– Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzainen Erregistroa.

Helburua:

Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzainak koordinatzea.

Aurreikusitako erabilerak:

Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzainak koordinatzea.

Lanbide-egiaztapenak egitea.

Udaltzainen eta ertzainen informatika-sareak eta sistemak elkarrekin konpartitzea.

Estatistikak kudeatzea.

Zein pertsona edo gizatalderi buruzko datu pertsonalak bildu nahi diren:

Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzainen kidegoetako langileak, bai eta zaintzaileak, jagoleak, alguazilak eta horren antzeko direnak ere, uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 117.1 artikuluan jasotako funtzioak egiten dituztenak alegia. Hirigunean zirkulazioa antolatu, seinaleztatu eta zuzentzeaz arduratzen diren funtzionarioak.

Biltzeko prozedura eta jatorria:

Udaltzaingoko burutzak emango du informazioa, edo interesdunak aurkeztutako dokumentazioaz baliaturik.

Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak: izena, abizenak, nortasun-agiri nazionalaren zenbakia.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: sexua, jaiotze-data.

Datu profesionalak: jagoleen edo antzekoen kasuan, egungo lanbide-zenbakia edo langileen erregistroko zenbakia. Lanbide-kategoria. Titulazio akademikoa. Agente bakoitzaren gidabaimenak. Egoera administratiboa.

Aurreikusten diren datu-lagapenak eta transferentziak:

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 11. eta 21. artikuluen araberakoak.

Segurtasun maila:

Handia.

Fitxategiaren arduradun den organoa:

Udaltzaingoak eta Segurtasun Pribatua Koordinatzeko Zuzendaritza.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horien aurka egiteko eskubideaz baliatzeko organo honetara joko da:

Udaltzaingoak Koordinatzeko eta Segurtasun Pribatuko Zuzendaritza (Larrauri Mendotxe bidea 18, 48950 Erandio, Bizkaia).

II. eranskina.– Polizia Zerbitzuetako Datuak Lantzeko Zentroaren fitxategiak (PZDZ).

57.– Herritarren segurtasunerako jardueren erregistroa.

Helburua:

Herritarren segurtasunerako garrantzitsuak diren jarduerei buruzko dokumentazio-erregistroa eta informazioa: lojamendu eta ostatuko enpresak; motordun ibilgailuen alokatzea eta desegitea; bitxiak eta material preziatuak merkaturatu eta birziklatzea; hondakin metalikoak lantzea; eta oro har txatarra eta hondakin-produktuak merkaturatzea.

Aurreikusitako erabilerak:

Administrazio-helburuak dituzten jarduerak, prozedura-izapidetzakoak eta zehapen-kudeaketakoak.

Helburu polizialak dituzten jarduerak, segurtasun publikoaren eta ikerketa polizialaren arlokoak.

Barruko estatistiken kudeaketa.

Zein pertsona edo gizatalderi buruzko datu pertsonalak bildu nahi diren:

Herritarren segurtasunerako garrantzitsuak diren jarduera hauetan parte hartzen duten pertsonak edo horiekin zerikusia dutenak: lojamendu eta ostatuko enpresak; motordun ibilgailuen alokatzea eta desegitea; bitxiak eta material preziatuak merkaturatu eta birziklatzea; hondakin metalikoak lantzea; eta oro har txatarra eta hondakin-produktuak merkaturatzea.

Biltzeko prozedura eta jatorria:

Honako hauetan dagoen informazioa Internet bidez edo faxez, paperez edo euskarri informatikoz edo magnetikoz jaso eta ikuskatzea: dokumentuak, erregistro-liburuak, aldizkako parteak eta legeriak eskatzen dituen gainerako komunikazio-egintzak.

Informazioa honako leku hauetatik jasotzen da: herritarren segurtasunerako garrantzitsuak diren lanak egiten dituzten establezimenduen titularrengandik edo kudeatzaileengandik; poliziaren jardueretatik; arlo horren eskumena duten beste administrazio batzuetatik. Nolanahi ere, Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoa bete behar da, bai eta arlo horretako gainerako arauak ere.

Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak: NAN/IFZ, izen-abizenak, helbidea (postazkoa eta elektronikoa), telefonoa, sinadura digitalizatua eta pertsona edo enpresa/establezimendua identifika dezakeen beste edozein datu.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: jaiotze-data eta -lekua, adina, sexua eta nazionalitatea.

Merkataritza arloko datuak: jarduerak eta negozioak.

Jarduerekin lotutako ondasun eta zerbitzuen transakzioei buruzko datuak.

Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoa dela-eta egindako arau-hauste administratiboei buruzko datuak.

Poliziaren jarduerei eta jarduera horietan parte hartzen duten pertsonei buruzko beste datu batzuk, herritarren segurtasunerako garrantzitsuak diren jarduerak direla-eta interesgarriak direnak, bai eta jarduera horiekin zerikusia duten ibilgailu, objektu eta establezimenduei buruzkoak ere.

Aurreikusten diren datu-lagapenak eta transferentziak:

Aurreikusitako datu-komunikazioak: Justizia Administrazioari egin beharrekoa, honako artikulu hauetan hala xedatuta baitago: Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 14. artikulua; Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2.d) artikulua. Arlo horren eskumena duten beste segurtasun-indar eta kidego batzuei ere egin behar zaie datu-komunikazioa hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 14. artikuluan. Halaber, aginpide berberak edo gai beretsukoak dituzten instituzio edo erakunde batzuei ere datu-komunikazioa. Nolanahi ere, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11. eta 21. artikuluak bete behar dira.

Datuak nazioartean eskualdatzea: nazioarteko erakundeei, esaterako, Interpol, Europol, Schengen Informazio Sistema, Europar Batasuna, eta abar. Horretarako, nazioarteko hitzarmen eta itunen arabera ezarritako protokoloak eta bideak erabiliko dira. Nolanahi ere, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 34.a) artikulua bete behar da.

Segurtasun maila:

Handia.

Fitxategiaren arduradun den organoa:

Segurtasun Sailburuordetza (Kabinete eta Baliabide Teknikoen Zuzendaritza).

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horien aurka egiteko eskubideaz baliatzeko organo honetara joko da:

Kabinete eta Baliabide Teknikoen Zuzendaritza, Larrauri Mendotxe bidea 18. 48950 Erandio, Bizkaia.

II. ERANSKINA

AURKIBIDEA

I. eranskina.– Herrizaingo Sailaren eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Ikastegia erakunde autonomoaren administrazio fitxategiak.

I.– Herrizaingoko Sailburuordetzaren menpeko zuzendaritzen erantzukizuna:

A) Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

1.– SOS DEIAK.
2.– Urrutiko laguntza.
3.– Larrialdietarako udaleko planak.
4.– Industria informaziorako sistemak.
52.– Datu hidrometeorologikoak eskatzea.
53.– Babes zibileko laguntzaileak diren boluntario-elkarteen erregistroa.
54.– Auto-babeseko planen erregistro orokorra.

B) Hauteskunde-administrazio, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

5.– Joko eta ikuskizunak.
6.– Debekuen eta auto-debekuen erregistroa.
7.– Jokoa kudeatzeko tresnak.
8.– Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskunde-kontsultak.
9.– Hauteskundeetako pertsona ospetsuak.
10.– Kargu publikoak.
11.– Komunikabideak.

C) Trafiko Zuzendaritza.

12.– Zehapen-espedienteak.
13.– Gidari-eskolak.
15.– Pertsonak.
19.– Trafikoa kudeatzea.

II.– Segurtasun Sailburuordetzaren menpeko zuzendaritzen erantzukizuna:

A) Kabinete eta Baliabide Teknikoen Zuzendaritza.

20.– Harpidedunak.
21.– Liburutegia.
22.– Ekinbide.
23.– Curriculuma.
25.– Jantziak.
46.– Telefono-abonatuak.
55.– Herritarrak erregistratzea.

B) Ertzaintzaren Zuzendaritza-Ikuskaritza eta Administrazio Atala.

48.– Ertzainak laguntzeko kudeaketa.

C) Udaltzaingoak eta Segurtasun Pribatua Koordinatzeko Zuzendaritza.

56.– Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzainen Erregistroa.

III.– Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren menpeko zuzendaritzen erantzukizuna.

A) Kudeaketa Ekonomiko eta Azpiegituren Zuzendaritza.

34.– Kontratazio- eta ondare-espedienteak kudeatzea.

24.– Hornitzaileak / Kontratistak.

B) Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritza.

31.– Errekurtsoak/ Erreklamazioak.

C) Giza Baliabideen Zuzendaritza.

26.– Langileen kudeatze integrala-Giza baliabideak.
27.– Medikuak.
28.– Kudeatze medikoa-Giza baliabideak.
29.– Epaileen zitazioak.
30.– Abokatu-laguntza.
47.– Lanbide identifikazioa kudeatzea.
49.– Laneko arriskuen prebentzioa.

IV.– Sailburuaren menpeko diren zuzeneko zuzendaritzen erantzukizuna.

A) Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.

33.– Terrorismoaren biktimak kudeatzea.

B) Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.

50.– Genero-indarkeriaren biktimak kudeatzea.
51.– 24 orduko telefono bidezko arreta.

V.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Ikastegia erakunde autonomoa.

37.– Posta-erregistroa–Ikastegia.
38.– Liburutegia eta dokumentazio-eskariak kudeatzea.
39.– Hautatze-prozesuak.
40.– Prestakuntza akademikoa.
41.– Aholkularitza juridikoa.
42.– Kontratazio-espedienteak kudeatzea.
43.– Langileen kudeatze osoa–Ikastegia.
44.– Kudeatze medikoa–Ikastegia.

II. eranskina.– Polizia Zerbitzuetako Datuak Lantzeko Zentroaren fitxategiak (PZDZ).

1.– Aginte eta kontrol Zentroaren jarduerak.
3.– Telefonemen erregistroa.
4.– Poliziaren posta-erregistroa.
5.– Polizia zentroak kudeatzea.
6.– Ekintza baliabideak kudeatzeko tresnak.
7.– Laguntza.
8.– Zentroetara sartzeko baimena.
9.– Sarrerak kontrolatzea.
10.– Segurtasun enpresak.

11.– Segurtasun neurriak hartu behar dituzten enpresak.
14.– Adierazpenak eta bilerak.
15.– Herritarren Segurtasunerako Legea (LSC)–Segurtasun pribatua aplikatzea.
16.– LSC zehapen-espedienteak.
17.– Genero-indarkeria.
18.– Ikerlan.
19.– Salaketak.
20.– Argiketak.
21.– Iturrien informazioa.
22.– Komunikazioen kontrola.
23.– Identifikazio genetikorako datu-basea.
24.– Ahotsak ezagutzea.
25.– Zantzuak eta adituen txostenak.
26.– Nekroidentifikazioa.
27.– Identifikatzea-Polizia zientifikoa.
28.– Heriotzak.
29.– Epaileen errekisitoriak eta aginduak.
30.– Polizia-intereseko gauzak.
31.– Polizia-intereseko ibilgailuak.
32.– Polizia-intereseko pertsonak.
33.– Identifikatuen liburua.
34.– Atxilotuen liburua.
35.– Atxilo.
36.– Presoen baimenak.
37.– Barneratuak eta atxilotuak lekuz aldatzea.
38.– Ospitaleratuen zaintzak.
39.– Zigiluak.
40.– Ibilgetutako ibilgailuak.
41.– Argiketarik gabeko trafiko istripua.
42.– Alkoholemia-probak.
43.– Diziplina-prozedurak.
44.– Ikerlan–Ikuskaritza orokorra.
45.– Iturrien informazioa–ikuskaritza orokorra.
46.– Izapideak-Ikuskaritza orokorra.
47.– Bereizgarriak eta lanbide-txartela.
48.– Armen kontrola.
50.– Adin txikikoak erregistratzea.
51.– Bideo-zaintza euskarria.
52.– Komunikazio-lineak grabatzea.
53.– Segurtasun kontrola.
54.– Bideo-zaintza sarea.
55.– Oinetakoen aztarnak.
56.– ADN baztertzea.
57.– Herritarren segurtasunerako jardueren erregistroa.